


## GUERO > GERO

### Zenon Uriguen pasiotarra



Mitxelena gizon jakin zaleak ontzat artzen dau Trentoko Eliz-batzarrak arturiko erabakia ta elburua: elizan eta errian Kristoren biziera eta kristau ikasbidea bizi, irakatsi eta eragitea. Ekinbide orren bidez Euskadi erri askoren erdua izan da fede bizibidean, familian eta gizarte oituretan. Ori ikusi eta jakiñik Kalaorra ta Iruñako Gotzaiñak erabaki eben itzaldiak eta irakaspenak euskeraz egitea erriaren **bake ta onerako**. Axular jaunak ikusirik elizaren aleginak Kristau fedea bizitzeko eta beste aldetik erriaren jakin-eza, Gero, Kristau fedearen liburu miragarria argitaratu eban sasoi egokian katekesi jardunbidean fedeari bizitasun eraginkorra emoteko. Zorioneko liburua.

### AXULAR

Bere izena Pedro Aguerre Azpilkueta da. Urdax edo Urdazubi errian jaioa dogu, Dantzarinea ondoan, “**AXULAR**” deritxon baserrian. Villasante jaunak uste dau Salamankan egin ebalá Batxillergoa. Eta gero, apaiza izateko Subdiakono Iruñan, diakono Leridan eta apaizgintza Tarbes´en 1596 urtean, eta Bayona´ko gotzaitegian Sara ko Parroko arduradun egiña ikusten dogu. Bere gurasoen datarik ez daukagu eta Melkisedek arbasoaren antzekoa dirudi. (1556-1644)

## EUSKAL IDAZLARI GORENA

Arrigarria da Axularren jakinduria. “Gogoz ikasi nuen jakinduria, damurik barik banatzen dot, ez ditut aren aberastasunak neuretzat bakarrik gordetzen, altxor agortezina da gizakiarentzat” (Jk.7-13-14.) Axularren garaietan ez egoan euskerazko libururik. Bere Euskera ederra erriaren altzoan ikasi ta egiña da. Mitxelenaren esanez Axular euskal idazlarien artean buruzagi dogu. 86 urte ditu Guero argitaratzean. Beti izan zan eliz eta euskara maillan entzute andiko apaiza. Eta liburu orren jatorria izan ziran apaizen arteko solasaldi jakingarriak fedeari buruz.” Auxe da liburu bakana oneraspen eta jaierari buruz idatzia eta itzulpena ez dana” “Eta Luis de Granadaren parekoa”. Axularren euskeran argi ta garbi ikusten da eliz-izlaria dala, erriaren euskera jatorra eta bikaña erabiliz. Axularren Gero´ren idazlana bikaina, ezin ohea dogu. **“A zer idazle andia iltzen dan enekin”**. **“Idazten duenak birritan irakurtzen du”**. **“Itzak egaz doaz, baña idatziak irauten dau”**.

